

Genero Berdintasunaren Indizea Nafarroan  
2010 - 2020 urteak

## Genero-berdintasunaren indizeak Nafarroan hobera egiten jarraitzen du, eta 100 punturen gainean 74,6koa da

2023ko irailaren 21a

2020an, 4,7 puntu egin ditu hobera, argitaratutako azken neurketaren –  
2017koa– aldean

Berdintasunaren arloan izan diren lorpenak askoz ere handiagoak dira osasunaren dimentsioan (88,2 puntu) eta diruarenean (77,9 puntu), eta txikiagoak ezagutzarekin eta enpleguarekin lotutako dimentsioetan (68,6 eta 72,7 puntu)

### GENERO-BERDINTASUNAREN INDIZEA NAFARROAN

Nafarroako **Genero Berdintasunaren Indizea (GBI)** 74,6 puntukoa izan da 2020an 100 punturen gainean, Nafarroako Estatistika Erakundeak (Nastat) prestatu dituen datuen arabera; alegia, 4,7 puntu egin du hobera, aurreko neurketarekin, 2017koarekin, alderatuta. 2010aren eta 2020aren artean, zazpi neurketa egin dira, eta neurketa horiek erakutsi dute Nafarroako GBaren balioa pixkanaka aurrera egiten ari dela; izan ere, 2010ean 66,9 puntu zituen eta, 2020an, 74,6.

Genero-berdintasunaren indizea adierazle konposatu bat da; Nastatek prestatzen eta argitaratzen du Genero Berdintasunerako Europako Institutuak (EIGE) Europar Batasunaren 27 herrialdeetarako haren Genero Berdintasunaren Indizea (GBI) <sup>1</sup> jendaurrean jartzeko baliatzen duen metodologia berarekin. Indize horretan, puntuazioa bat eta ehun balioen artean neurtzen da; baliorik altuena da GBIn aurreikusten diren errealitate politikoaren, ekonomikoaren eta sozialaren dimentsio guztietan ahalik eta berdintasun posible handienarekin identifikatzen dena.

Nafarroako GBa, 2020an, Europako sailkapenaren goiko erdian dago, Espainiaren puntuazio berarekin (74,6 puntu). Sailkapen orokorrean, Suediak du puntuaziorik onena, 83,9, eta Greziak, txarrena, 53,4 puntu.

<sup>1</sup>Genero Berdintasunerako Europako Institutuak (EIGE) denbora-erreferentzia gisa argitalpen-data hartzen du eta ez datuak eskuratu direnekoa; Nastatek, berriz, datuak eskuratu direnekoa.



## DIMENTSIOAK ETA AZPIDIMENTSIOAK

Genero Berdintasunaren Indizeak balio bakarrean laburtzen du gizon eta emakumeen arteko 31 berdintasun-adierazleren informazioa; aldi berean, informazio xehatuagoa ere ematen du eta, horretarako, EIGEn metodologian aurreikusten diren **sei dimentsioetan eta hamalau azpidimentsioetan** berdintasunarekin zer gertatzen den deskribatzen du.

Dimentsioen eremuan, Genero Berdintasunaren Indizearen balio orokorrak alde garrantzitsuak ditu, berdintasuna zein errealitate politikotan, ekonomikotan eta sozialetan neurtzen den. Berdintasuna handiagoa da *osasunaren* dimentsioan (88,2 puntu) eta *diruarenean* (77,9), eta txikiagoa *enpleguarekin* eta *ezagutzarekin* zerikusia duten dimentsioetan (72,7 puntu eta 68,6 puntu, hurrenez hurren). Azpidimentsioen mailara jaitsiz gero, gizon eta emakumeen arteko berdintasuna Nafarroan osasun-zerbitzuetara duten sarbideari eta *osasun*-egoerari dagokienez ia erabatekoa dela ikusiko dugu (99,2 puntu eta 94,2 puntu), eta baliorik baxuenak ditu *gizarte-jardueren* eta *ezagutzaren bereizketaren* azpidimentsioetan, 64,0 eta 59,0 puntu, hurrenez hurren. Legeriak hauteskunde-zerrenden kuotetan eta formulazioan duen eragina eta eremu publikoko aldaketak oraindik ez dira islatu espazio pribatuari dagozkion gizarteko beste eremu batzuetan.

### 1. TAULA

Genero Berdintasunaren Indizea eta berdintasunaren neurketa indizea eratzen duten dimentsio eta azpidimentsioetan. 2020. urtea.

	Nafarroa	EB-27	Indizea Nafarroa (EB-27 = 100)
<b>GBI</b>	<b>74,6</b>	<b>68,6</b>	<b>109</b>
<b>1. Enplegua</b>	<b>72,7</b>	<b>71,7</b>	<b>101</b>
Parte-hartzea	79,5	81,1	98
Lanaren bereizketa eta kalitatea	66,4	63,3	105
<b>2. Dirua</b>	<b>77,9</b>	<b>82,6</b>	<b>94</b>
Finantza-baliabideak	75,2	77,2	97
Egoera ekonomikoa	80,7	88,3	91
<b>3. Ezagutza</b>	<b>68,6</b>	<b>62,5</b>	<b>110</b>
Lorpena eta parte-hartzea	79,7	72,1	111
Bereizketa	59,0	54,1	109
<b>4. Denbora</b>	<b>75,4</b>	<b>64,9</b>	<b>116</b>
Zaintza pertsonalak	88,8	69,1	129
Gizarte-jarduerak	64,0	61,0	105
<b>5. Boterea</b>	<b>74,0</b>	<b>57,2</b>	<b>129</b>
Politikoa	90,6	60,2	150
Ekonomikoa	68,4	52,1	131
Soziala	65,3	59,9	109
<b>6. Osasuna</b>	<b>88,2</b>	<b>88,7</b>	<b>99</b>
Egoera	94,2	91,9	103
Jokabidea	73,5	77,8	94
Sarbidea	99,2	97,6	102

Iturria: Nastat (NNafarroa) eta EIGE (EB-27)

Nafarroako emaitzak eta Europar Batasuneko orokorrak alderatzen direnean ikusten da Nafarroak EB-27 orokorra gainditzen duela indize orokorrean eta dimentsio guztietan, bitan izan ezik: *dirua* eta *osasuna*. Gainerako dimentsioetan Nafarroak Europan duen posizioa nahiko ona da (baita *osasunean* ere, batez bestekoa baino bost hamarren baxuagoa), baina *diruaren* dimentsioan Foru Komunitatea 18. postuan dago. Ezaugarri bera dute alde horretatik Nafarroak eta Espainiak eta lortu den informazioari dagozkion autonomia-erkidegoek.



## DENBORA-BILAKAERA

Nafarroan berdintasunerako joera **sendoa baina geldoa da**. Behaketa gehienek aurrekoen emaitzak hobetzen dituzte, eta, hamaika urtean, hobekuntza metatua 7,7 puntukoa izan da (ehunen gainean). Hobetzeko abiadura hori estrapolatzean ikusten da erabateko berdintasuna 33 urte barru eskuratuko litzatekeela.

### 2. TAULA

GBIaren bilakaera Nafarroan eta berdintasun-neurriak dimensio eta azpidimentsioetan

2010 - 2020 urteak.

	2010	2012	2015	2017	2018	2019	2020
<b>GBI</b>	<b>66,9</b>	<b>68,1</b>	<b>69,2</b>	<b>69,9</b>	<b>71,1</b>	<b>73,5</b>	<b>74,6</b>
<b>1. Enplegua</b>	<b>70,1</b>	<b>71</b>	<b>71</b>	<b>71,2</b>	<b>71,6</b>	<b>72,4</b>	<b>72,7</b>
Parte-hartzea	77,5	77,3	76,7	77,6	80,7	80,2	79,5
Lanaren bereizketa eta kalitatea	63,4	65,2	65,7	65,4	63,5	65,3	66,4
<b>2. Dirua</b>	<b>77,4</b>	<b>77,4</b>	<b>77,8</b>	<b>78,3</b>	<b>78,7</b>	<b>78,0</b>	<b>77,9</b>
Finantza-baliabideak	71,6	71,6	73,5	73,6	74,2	75,4	75,2
Egoera ekonomikoa	83,7	83,7	82,3	83,2	83,6	80,7	80,7
<b>3. Ezagutza</b>	<b>58,5</b>	<b>61,6</b>	<b>64,5</b>	<b>65,8</b>	<b>66,0</b>	<b>67,8</b>	<b>68,6</b>
Lorpena eta parte-hartzea	74,2	76,7	77,1	77,1	76,8	79,6	79,7
Bereizketa	46,1	49,5	53,9	56,1	56,8	57,7	59,0
<b>4. Denbora</b>	<b>68,8</b>	<b>68,8</b>	<b>68,8</b>	<b>68,8</b>	<b>75,4</b>	<b>75,4</b>	<b>75,4</b>
Zaintza pertsonalak	73,7	73,7	73,7	73,7	88,8	88,8	88,8
Gizarte-jarduerak	64,3	64,3	64,1	64,1	64,0	64,0	64,0
<b>5. Boterea</b>	<b>55,4</b>	<b>56,6</b>	<b>58,8</b>	<b>60,2</b>	<b>60,5</b>	<b>69,4</b>	<b>74,0</b>
Politikoa	71,3	75	79,8	86,4	86,3	88,1	90,6
Ekonomikoa	42,5	43,6	45,9	45,8	44,1	63,1	68,4
Soziala	55,7	55,6	55,4	55,1	58,1	60,2	65,3
<b>6. Osasuna</b>	<b>90,2</b>	<b>90,3</b>	<b>88,2</b>	<b>88,3</b>	<b>88,2</b>	<b>88,2</b>	<b>88,2</b>
Egoera	94,1	94,3	94,1	94,5	94,0	94,1	94,2
Jokabidea	78,8	78,8	73,5	73,5	73,5	73,5	73,5
Sarbidea	99,1	99,1	99,1	99,1	99,2	99,2	99,2

Iturria: Nastat. Genero Berdintasunaren Adierazlea.

Berdintasunera daramaten aldaketak geldiro gertatzea ez da Nafarroako gizartearen joera soilik; erritmoa azkarragoa da Nafarroan Europan baino, baina Espainian baino geldoagoa. Esaterako, 2010-20 aldiaren erritmoari jarraituz gero, Espainiak 31 urte beharko litzuke erabateko berdintasuna izateko, eta EB-27k askoz ere gehiago: 57 urte.

Nafarroan generoaren aldetiko desberdintasuna bereziki iraunkorra da honako arlo hauetan, besteak beste: *egoera ekonomikoa, gizarte-jardueri eskainitako denbora* edo *osasunarekin zerikusia duen jokabideak*. Haietan guztietan, desberdintasuna ez da murriztu, eta areagotu egin da 2010aren eta 2020aren artean. Politikaren eremuan lortu diren hobekuntza azkarrak, kontuan hartuta hartan emakumeek, gaur egun, gizonen proportzio ia berean parte hartzen dutela Nafarroako erakundeetan, ez dira lortu gizarte-portaeren eremuan, etxeko lanen banaketa edo kontsumo- eta bizitza-ohiturak barne, eta ez dute baliabide ekonomikoen banaketa zuzenagoa ekarri.

## KONPARAZIOA AUTONOMIA-ERKIDEGOEKIN ETA EUROPAKO BESTE HERRIALDE BATZUEKIN



CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00

Nafarroak genero-berdintasunean izan dituen aurrerakuntzak zuzen balioesteak dakar haien emaitzak beste herrialde eta eskualde batzuenekin alderatzea. Hori horrela, Nafarroako GBlrako hautaketa metodologikoa oso komenigarria da; izan ere, Europar Batasuneko 27 herrialdeetarako eta Euskadiko eta Kataluniako autonomia-erkidegoetarako informazio erkagarria dago.

### 3. TAULA

Genero Berdintasunaren Indizearen bilakaera zenbait autonomia-erkidegotan.  
2010 - 2020 urteak.

	2010	2012	2015	2017	2020	Aldakuntza (%) 2010 - 2020	Berdintasuner ako urteak
Nafarroa	66,9	68,1	69,2	69,9	74,6	7,7	33
Euskadi	68,8	69,1	69,3	71,1	73,1*	4,3*	63
Katalunia	64,9	64,2	68,0	70,9	74,1	9,2	28

Iturria: Nastat (Nafarroa), Eustat (Euskadi), Idescat (Katalunia).  
\*Eskuragarri dagoen azken datua 2019koa da.

Nafarroako emaitzak **Espainiako** emaitza orokorren oso antzekoak dira; indizearen emaitza berdintsua da 2020an, 74,6 puntukoa 100 gainean. Aurkitu diren aldeak arinak dira dimentsio guztietan, eta Nafarroaren aldekoak kasu guztietan, bi dimentsiotan izan ezik: *enplegua* eta *osasuna*. Alde nabarmen bakarra *denboraren* dimentsioarena da; hartan, Nafarroak aldea ateratzen dio Espainiari, 11,4 puntukoa.

Nafarroaren eta **Euskal Autonomia Erkidegoaren** arteko alderaketatik, antzeko ondorioak ateratzen dira. Kasu honetan, Nafarroak Euskadi gainditzen du *ezagutza*, *botere* eta *denboraren* dimentsioetan, eta gainerakoetan gainditua da. Aldeak oso txikiak dira kasu honetan ere, *diruaren* eta *osasunaren* dimentsioetan izan ezik, haietan Euskadik 7,5 puntuko eta 4,2 puntuko abantaila baitu, hurrenez hurren. Ordea, Nafarroa Euskadiren aurretik dago *boterearen* eta *ezagutzaren* dimentsioetan (11,3 eta 3,0 puntu aurretik, hurrenez hurren).

### 4. TAULA

Genero Berdintasunaren Indizearen bilakaera Europan.  
2010 - 2020 urteak.

	2010	2012	2015	2017	2020	Aldakuntza (%) 2010 - 2020	Berdintasuner ako urteak
Espainia	66,4	67,4	68,3	70,1	74,6	8,2	31
Suedia	80,1	79,7	82,6	83,6	83,9	3,8	42
Grezia	48,6	50,1	50,0	51,2	53,4	4,8	97
EB-27	63,1	64,4	65,7	66,9	68,6	5,5	57

Iturria: EIGE.

Zerbait antzekoa gertatzen da alderaketa **Kataluniarekin** egiten denean, baina autonomia-erkidego horrek lortu duen puntuazio orokorra bost hamarren baxuagoa da (74,1 puntu eta Nafarroak 74,6 puntu). Kataluniak 2,2 puntu gehiago ditu Nafarroak baino *enpleguan*, eta Nafarroa berriro nabarmendu da *denboraren* eta *ezagutzaren* dimentsioetan.



## 5. TAULA

Genero Berdintasunaren Indizea eta berdintasunaren neurketa autonomia-erkidegoetarako eta herrialdeetarako indizea eratzten duten dimentsio eta azpidimentsioetan. 2020. urtea.

	Nafarroa	Euskadi	Katalunia	Espainia	Suedia	Grezia	EB27
<b>GBI</b>	74,6	73,1	74,1	74,6	83,9	53,4	68,6
<b>1. Enplegua</b>	72,7	74,6	74,9	73,6	82,9	65,5	71,7
<b>2. Dirua</b>	77,9	85,4	78,9	78,7	85,8	72,8	82,6
<b>3. Ezagutza</b>	68,6	65,6	63,9	68,3	74,5	55,7	62,5
<b>4. Denbora</b>	75,4	74,1	72,1	64,0	90,0	44,7	64,9
<b>5. Boterea</b>	74,0	62,7	75,7	80,6	84,6	28,8	57,2
<b>6. Osasuna</b>	88,2	92,4	90,1	91,7	95,2	85,8	88,7

Iturria: Nastat. Genero Berdintasunaren Adierazlea.

\*Eskuragarri dagoen azken datua 2019koa da.

Nafarroak, Espainiak eta Europako gainerako herrialdeek (eta, seguruenik, mundukoek) **Suedia** eredu gisa dute berdintasunari dagokionez. EIGEn datuekin bat etorritik, herrialde horretan dagoen berdintasun-mailarik altuena argi ikusten da, bai indize orokorrean, zeina Suedian 83,9 puntukoa baita, bai indizean aurreikusten diren dimentsio gehienetan. Gainerako herrialde eta lurraldeei dagokienez, emaitzarik berezikiak *denboraren* dimentsioan lortu dira; *diruaren* dimentsioan soilik ez dute izan lehen posiziorako puntuazioa, EB-27an bederatzigarren posizioan geratu baita.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Genero Berdintasunaren Indizea. 2020. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

[estadistica@navarra.es](mailto:estadistica@navarra.es)

848 42 34 00